



Literatura eta memoria

Iritziak: Leonardo Cecchini Italia • Stefanie Lehner Irlanda

Mahai-ingurua: Mikel Ayerbe • Iratxe Retolaza • Juanjo Olasagarre



Literaturaren balioa bakea eszenaratzeko saioan

Literatura eta memoria gaia hartu dugu hizpide. Alegia, gatazka politikoaren memoria, fikzioaren bidez islatua. Hainbat premisetatik abiatu dugu mahai-ingurua. Gatazkaren gainean jardutean zertaz ari gara, baina? Horra premisa bat. Eta halaxe jalgia dira ere hitzak, gaia poliedrikoa baita, euskal gatazka islatzen duten nobelak antzo. Gaiak ertz dezente dauka. Zorrotzak batzuk eta kamutsak bestetzuk. “Literaturak lagundu dezake gatazka gainditzeko?” galdera izan da solasaldiaren ardatza. Galderak, baina, Tzvetan Todorov-en aipu hau dauka berarekin: “Gatazkak edo gerra zibilak bizi izan diren gizarteetan literaturak lagundu dezake egoera gainditzeko, eskubide unibertsalak aldarrikatuz. Dikotomiak agertuz (manikeismoaren bitartez, esaterako) gorrotoak irautea lortzen da. Horregatik, kultura heldu batek egoera horretan gertatutakoa azal dezake, baina betiere ikuspuntu gizatiar batetik”. “Gizatiar”, “gatazka” eta honek sorrarazitako “trauma” hitzen bueltan aritu gara.



■ **Egilea: Mikel Asurmendi**
Argazkiak: Dani Blanco

Literaturak lagundu dezake gatazka gainditzeko?

JUANJO OLASAGARRE: Literatura konprometitua deituak balio badu gizartea aldatzeko, “literaturak laguntzen ahal du gatazka gainditzeko?” galde dezakegu. Neurri batean, bai. Alegia, errealitatea islatzeko edo sinbolizatzeko balio duen neurrian, literaturak gatazka islatu edo sinbolizatu dezake. Hala ere, politikak [politikariak] gainditu behar du gatazka. Eta nire susmoa da –krisi garaian gaudelako edo ETArekin bukaera gertatu zen bezala gertu delako–, ez ote zaion hori eskatzen ari beste izate edo entitate batzuei. Bakea edota

“trauma” delakoa antzezteko, politikari eskatu beharko litzaiokeen hainbat gauza literaturari eskatzen ari ote zaion zalantza daukat. Trauma antzezteko aipatu dut. Hori da gakoa, niretzat. Nik Hego Afrikan ikasi nuen gatazkaren gainditzeko, traumaren gainditzeko, hein batean antzeztu behar dela. Antzezpen horretan literaturak badu zeresana, baina konponbidea ez da literaturarena, arazoaren konponbidea politikarena da.

IRATXE RETOLAZA: Literatura errealitateari aurre egiteko espazio proposa izan daiteke, neurri batean. Hau da, besteen esperientzien berri

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.379. zenbakiarekin banatua, 2013ko uztailaren 28an)



Hurrenez hurren, Juanjo Olasagarre, Iratxe Retolaza eta Mikel Ayerbe, ARGIAko egoitzan.

izateko, eta besteen lekuan jartzeko. Literatura gogoeta egiteko lekua da. Baina horretarako ez da nahikoa literatura, oso garrantzitsua da testua nola sozializatzen den, eta uneon euskal literaturaren testuak sozializatzean egiten diren gogoe-tak eta irakurketak –testu literarioen interpreta-zio asko– instituzioen eta alderdi politikoen logikatik egiten da. Hori oso arriskutsua da. Hau da, egon daitezkeen dikotomiak –esparru politi-koaren hizkuntza kodeak eta abar– hausteko aukerak erabiltzen ditugu testu literarioan. Lite-raturak gaia sozializatzeko ematen dituen auke-rak hausten dira modu horretara. Nobela batean ETako kidea agertu, eta ondorioz ETaren alde edo kontra izan behar duzu. Nobela horretan beste gai asko daude. Hau da, esparru politikoaren diskurtsoak jaten ditu neurri batean literatu-rak –eta kulturak oro har– sor ditzakeen beste harremanak, beste kode eta dinamika batzuk.

MIKEL AYERBE. Duela hamar urte, beharbada, ez zen “Literaturak lagundu dezake gatazka gain-ditzen?” galdera planteatzen. Orduan, “lagundu lezake ulertzen” galdetzen zen agian. Beraz, lite-raturak politikak edo kazetaritzak ekartzen ez duen beste zerbait ekar dezake? Bai. Literaturak ahalbidetzen du gai batzuk jorratzea, ideologiko-

ki bat ez datozen pertsonaiak sartuz jokoan, eta hartara, imajinatzen ez dituzun pertsonaiak edo gaiak topatzea. Kontua galderak eragitea eta ondorioak ateratzea da. Nik egun baikorretan Iban Zalduak *Ese idioma raro y poderoso* saiakeran esaten duenarekin bat egiten dut. Hau da, lagun-du egiten du, dosi homeopatikoa bada ere. Gero, komeni da hau gogoratzea: gatazkari buruzko 70eko gizartearen ikuspegia eta egun-goia ez dira berdinak, eta gatazkaren isla 80ko, 90eko eta 2000ko literaturan ere ez.

Tódorovek “kultura heldu batek gatazka garaian gertatutakoa azal dezake, baina betiere ikuspuntu gizatiar batetik” dio.

I. RETOLAZA: Ayerbek esandakoaren harian, aro baten amaieran gaude, baina bakoitzak gatazka modu ezberdinean bizi du, eta amaiera ere bakoit-zak modu ezberdinez bizi du. Tódorov-en aipua hizpide: ez zait iruditu “hitzarmena” lortzeko zorian gaudenik. Literaturak lagundu dezake, baina euskal literaturaren barruan dauden komu-nitateak, gatazkan inplikatuak daudenak, gutxi batzuk baino ez dira. Literaturaren eragina urria da, eta gainera, norabide bakarrean gertatzen da. Itzultzen den neurrian eragin leku bat du, baina itzultzen ez bada? Adibidez, 1936ko gerrari

buruzko nobelak: frankistak eta komunistak elkar ulertzen zuten kode batean aritzen ziren, eta elkarri eragiten zioten literatur sistema batean. Gaur egun, euskal literaturan sortzen ditugun testuek soilik eragiten dute gatazkan dauden komunitateetako alde batean.

J. OLASAGARRE: Alegia, esaterako, Madrilgo biktima bati ez dio eragiten. Gerra zibilaren ondoren, oroimenari buruz ari naiz orain, subjektu berri bat sortu zen. Frankismoak bere jatorria legitimatu zuen bere literaturaren

bidez. Orduan, nolabait, gauzak egiteko modua legitimatu zen Francok irabazi zuelako. Hemen ez da hori gertatu, eta ez da gertatuko alde batek ez duelako bestea gainditu. Badirudi *impasse* egoeran gaudela. Ez dakigu nola gaindituko den egoera politikoa. Integratuko al da gatazkaren alde bat dagoen *status quo*an? Nire ustez, ez da subjektu politiko berri bat sortuko, irentsia geratuko da. Ez dago adostasunik. Nik ulertzen dut zuk diozuna [Retolazari], baina alde batena soilik kontatzen bada, beste batzuei ez zaie hori interesatzen. Beharbada gure litera-

M a h a i k i d e a k

■ **JUANJO OLASAGARRE MENDINUETA**
Hizkuntza Eskolako Euskara irakaslea eta idazlea



(Arbizu, 1963). Psikologian lizenziatua. Literaturaren genero ugari landu ditu: nobela, poesia, antzerkia, kronika. Euskal gatazkari erreferentzia egiten dioten bi nobela idatzi ditu: *Ezinezko mailetak* (Susa, 2004) eta *T* (Alberdania, 2008). Hego Afrikan egon zen aldi batez, eta *Mandelaren Afrika* kronika liburuak (Susa, 1998) da haren lekuko. Idazlea. Volgako Batelariak blog literarioaren partaidea da. Euskal prentsan zutabegile da. Besteak beste, ARGIAN iraganean, *Deian* gaur egun. Hizkuntza Eskolako Euskara irakaslea.

■ **IRATXE RETOLAZA GUTIERREZ**
EHUko irakaslea eta literatur kritikaria



(Donostia, 1977). Euskal Filologian lizentziaduna. EHU eta USCn Doktorego ikasketak egiten dihardu literaturaren alorrean. EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saileko irakaslea da. *90eko hamarkadako narratiba: literatur kritika* (Labayru, 2000), *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza* (Utriusque Vasconiae, 2002) dira bere liburuak. *Egungo euskal nobelaren historia* (EHU, 2007) koordinatu du. Egunkari eta aldizkarietako kolaboratzaile, batik bat literatur kritikaren esparruan.

turan gutxitan agertzen da ETAren biktima, bizkartzainak daramatzatenenak.

I. RETOLAZA: Ez naiz horren ados horrekin.

M. AYERBE: Garaiak aldatzen doaz. Egun ETAz hitz egitea askoz errazagoa da duela hamabost urte baino. Hori aldatzen ari den seinalea literaturan ageri da. 70eko nobeletan, gehienbat, pertsona bat borroka armatuan inplikatu izanaren justifikazio etiko eta morala agertzen zen. Aldiz, literatura garatuz joan den heinean, biktimen

esparrua aldatzen joan da. 90etik aurrera, gaietako bat ez da biktimarena, borrareroaren rola agertzen da gehiago. Ezin dugu ahaztu espainolez idatzi den literatura ere, horiek gehiago arduratu dira –gurean hutsune izan den neurrian– ETAkideaz. ETAkidearen irudia gehiago karikarizatu da liburu espainoletan euskaldunetan baino.

I. RETOLAZA: Nola gerta. Jokin Muñozen *Bizialon*, ETAkidearen karikaturizazioa badago.

J. OLASAGARRE: Ez dut uste karikaturizazioa denik. Gatazkak subjektu traumatikoa sortu du, eta neurri batean subjektu hori narratzen da. Carlos (Atxagaren *Gizona bere bakardadean*) tipo hautsi bat da. Muñozen *Bizialoko* azken ipuinean, nolabait, badirudi errealismoa ez dela nahikoa narratzeko, beraz, badago desegokitze bat, deslokalizatze bat trauma kontatzeko. Barrutia, *T* nobelako protagonista (nire nobelaz ari naiz eta barka) halakoxea da. Beste gauza bat da nobela onak diren edo ez. Muñozen pertsonaia exageratua dela? Zentzu horretan, gatazkak sortu du pertsonaia ero bat. Ohar bat: Barrutia ez da ETako militantea.

MIKEL AYERBE SUDUPE
EHUko irakaslea eta literatur kritikaria



(Azpeitia, 1980). Literatur Teorian eta Literatura Konparatuan (UB) eta Euskal Filologian (EHU) lizentziatua da eta egun, Gasteizko Letren Fakultatean dihardu euskal literaturako eskolak ematen. Gerra Zibilaren eta egungo gatazka sozio-politikoen inguruko ipuinak biltzen dituen *Our Wars: Short Fiction on Basque Conflicts* (CBS, 2012) apailatu du eta *Euskal Narratiba Garaikidea: Katalogo bat* (Etxepare Euskal Institutua, 2012) egilea ere bada. *Berria* egunkarian literatur kritikari lanak eginikoa da.

M. AYERBE: Salbuespena da. Euskal literaturan gehien landu dena trasuntoa da. ETako militantearen nondik norakoa kontatzeko modua, *Exkixatik* hasita [Txillardegiren nobela]. Nik espainol literatura aipatzean, adibidez, *El Lobo* pertsonaiaren bidez, espainola kontsumoko artera hurbiltzen dela esan nahi dut. Horiek nituen gogoan karikaturizazioa aipatzean. Batetik euskaldun ezjakina dago, eta bestetik konbikzio oso argiak dituen. Euskal idazleek horren motibazioak biltzen dituzte. ETAkidea erabakiak hartzerakoan zalantzan dago. *Soinujolearen semea* protagonista [Atxagaren nobelako Joseba] ETAn sartzeko erabakian eromen puntu bat dago, inork ez daki zer-gatik erabakitzen duen. Hori nobela askotan dago.

I. RETOLAZA: Horregatik, euskal gatazkaz hitz egitean, ETAkideak bakarrik aipatzen ote diren nago. ETAren biktimaren ahots hori eta ETAkideak askotan agertzen dira mamu bat dagoelako.



“Subjektu traumatikoa aspaldi agertu da euskal literaturan. Traumak zer adierazten du? Zuk egoera bizi zenuela, egoera hori bat-batean hautsi dela eta zuk subjektu izateari utzi diozula”, dio Olasagarrek.

Pertsonaia kolektiboa da, komunitate baten isla, eromen puntua duena. Gaur bilakaera baten kontaketa ageri da (A. Lertxundiren *Ettxeko hautsan*) eta (I. Bordaren *Boga bogan*) pertsonaiak gizatiarragoak dira, baina oso estigmatizatuak daude, komunitatea homogeneoa balitz bezala, komunitate hori ezker abertzalea balitz bezala. *Martutenen* [Saizarbitoriaren nobela] askotan agertzen da. Familia baten posizioa balitz bezala, batzuetan iruditzen zait pertsonaia kolektiboa sortu dela hau adierazteko: ezker abertzalea berdin ETA. Euskal nobelak esparru politikoaren diskurtsoetik eginak ote diren nago. Eroarena bat-batean agertzen da, testuinguru batetik aterako balitz bezala, baina, badirudi subjektu hori ez dela erabakia hartzen duena.

M. AYERBE: Justifikazio bat bilatzen da. ETAn sartzeko aitaren parte-hartzea kontatu behar da nolabait. *Soinujolearen semea* ez da kontatzen ETAkideak noiz hartu duen erabakia. Baina *Soinujolearen semea*ren aldean, Muñozen *Antzararen bidean* nobelan badago subjektuaren bilakaera; *Martutenen* ere bai. Juliaren bilakaera ageri da, eta gero urruntzen da, badago garapen bat.

I. RETOLAZA: Baina bi posibilitate daude hor: gaitzesten dut edo miresten dut. Dikotomia horretan, orokorrean, pertsonaia da jarrera. Ero hitza erruz agertzen da. Gauza bat da imajinario kolektiboan nola irudikatzen diren eta beste bat bizipen pertsonala. Gauza bat da eroaren irudia eta miresmena, eta beste bat gaitzespena, eta tartean, gizarteko oposizio guztia.

J. OLASAGARRE: 90era arte abertzaletasunaren inguruko pertsonaiak ageri dira batez ere euskal literaturan, borroka armatua eta atentatuak. Gero beste bilakaera bat dago. Hau da, euskaraz idazte hutsagatik abertzaleak izatea dagokigula dioen ikuspuntua. Euskal literaturan horren aldeko justifikazioa –edo kontrakoa– ageri da, mundu abertzalearen ikuspuntu hori erabat arbuiatu gabe. Zerbait gaizki dagoela esateko ez ohiko bideetatik jotzen da. Gero, alde batekoei bere aldeko pertsonaia karikatura iruditzen zaie eta alderantziz.

M. AYERBE: Askotan jotzen da gertaera handietara: “ETAn sartu nintzen motibazio honengatik”. *Ettxeko hautsan* ez dut aurkitu hori. Zergatik eman zion laguntza hori. [Protagonistak] Miresmena dauka neskarengatik, baina ez da maitemina. Aitaren kontra egiten du, baina ez dago haserre aldirik. Orduan, zergatik? Garai hartan hori egitea espero zitekeelako? Uxue Apaolazaren *Mea culpa*n alde hori askoz sintzeroagoa egin zait. Gatazkaren lekukotasunak gehiago ageri dira parte-hartzaileak baino. Horrek erru sententzio



Iratxe Retolaza

Ez zait iruditzen gatazka gainditze horretan trauma dagoenik. Duela hamar edo hogeit hamar urte, jende asko –ari naiz subjektu pertsonalen traumaz– orain eta orduan utzi ez zuen komunitate batera itzultzen da gaur egun”

bat sortzen dio protagonistari, hori gaitzestera eramaten duena. Gogoeta pila egiten du. Nobela ez zait borobila iruditzen, gakoren bat falta zaio, baina gogoetak sintzeroak dira. Hau da, zein neurritan da posible hori egitea, saiakera, kronika edo autobiografia izan gabe? Nobela batean elementu horiek zail baitira uztartzen.

I. RETOLAZA: Nobela horretan pertsonaiak zergatik sentitzen duen erredun sentimendua ageri da. Gure literaturan egin den gauza asko, 80ko hamarkadaren ikuspegitik egin da, gure belaunaldian ez da pentsamendu hegemonikorik izan, gurean pentsamendua ilegalizatua egon da.

J. OLASAGARRE: Ez, Retolaza. Ni ez naiz pentsamendu ilegalizatuaz edo hegemonikoaz ari. Nobela idazten baduzu euskaraz, berez, abertzalea zareneko marka azpimarratu nahi izan dut. Hortik ateratzeko “ni ez naiz hori, ni hau naiz” esan behar duzu. 80ko edo 90ekoa? Horrek ez du esan nahi kalean pentsamendu hegemonikoa hori denik, baina euskaraz egiten zen –ez naiz ausartzen egiten dela esaten, ordukoa baita–ekoizpen kultural nagusian horrek neurri batean mugatu du zer eta nola kontatu nahi izan duzun.

I. RETOLAZA: Nik 80ko hamarkadako memoria ez dut zuk [Olasagarrer] bezala bizi, beste modu batez jaso dut. Nik Atxaga kanpora ateratzen denetik bizi izan dut, legimititatea hartzen duenetik. Ur Apalategiri galdetu zioten Galizian: “Beraz, zure hitzaldiaren arabera euskal idazlea eta kanonikoa izateko ez-abertzalea izan behar duzu?”. Erantzuna: “Bada, bai, hala da”. Galegoek arraro ikusten zuten hori 80ko hamarkadan.

Jarrai dezagun trauma delakoa hizpide. Literaturak goxatu ahal du trauma, bederen?

J. OLASAGARRE: Subjektu traumatikoa aspaldi agertu da euskal literaturan. Traumak zer adierazten du? Zuk egoera bizi zenuela, egoera hori bat-batean hautsi dela eta zuk subjektu izateari utzi diozula. Zuk zenituen baldintzak hautsi dira, pasa-



Juanjo Lasagarre

Ezker abertzaleari traumaren bukaera iritsi zaio, traumaren ondorengo garaian gaude, baina ez daki non dagoen zehazki, aurrera nola egin ez daki. Komunitate horrek beste modu bat aurkitu beharko du egoera kontatzeko”

tu behar duzu halako pasaia bat, eta beharbada, sortuko zara beste subjektu bat bezala. Subjektu indartsua baldin bazara aurreko guztia gaudituko duzu, baina bestela hor segituko duzu, makal. Hori da biktimei gertatzen zaiena. Hainbat pertsonaiari ere literaturan geratzen zaie, pasaia bat da, ateratzen dira beste modu batez. Niri traumaren kontu honetan interesatzen zait, bai irakurketa politikoa bai literarioa. Politikoa kasuan, badi-rudi trauma bukatu dela oso modu traumatikoan, sozialki ez dagoela sendabiderik. Hego Afrikan trauma irudikatzen zen astero, teleaio bat zegoen, eta berauetan epaiketa berezi bat egiten zen, han norberak kontatzen zuen zer egin zuen. Hau da, hori hemen ez da lantzen ari. Interes partikularrengatik, krisia dela eta, dirurik ez dagoelako.

M. AYERBE: Zentzu horretan, *Twist* nobelarekin gertatua esanguratsua iruditzen zait. Harkaitz Canok erabaki du herri honetan bizi zen gertakari lazgarri batetik literatura egitea. Transuntoak [Soto eta Zeberio] erabili ditu nobela egiteko. Ez da, adibidez, Truman Capoteren *Odol hotzean* nobelaren kasua. Canok fikzioa egin du. Dioenez, bera ez zen Lasa eta Zabala familiarekin egon, ez zuen euren lekukotasuna jaso. Nobela egin ondoren senide batekin egon zen [Berriako igandeko gehigarrian erreportajea agertua] eta hor dinamika bat sortu da politikaren ildoan. Baina nobelan ez dago gai hori bakarrik. Bestalde, *Martutene* nobela hizpide, *El Pais* digitaleko elkarrizketan irakurle erdaldunek Ramon Saizarbitoriari egiten zizkieten galderak gai horren ingurukoak



“Mikel Antzak gatazkaren inguruan esaten du ‘nik idatzi dudana autofikzioa da, banaiz ni baina ez naiz ni’. Bada, niri duda-muda asko sortzen zait. *Atzerri*n Euskal Herriko askapenaren aldeko borrokarekin zerikusia duen garrantzitsuena kontakizunetik at uzten du”, dio Mikel Ayerbek.

ziren. Alegia, premisa bat dago horretaz hitz egiteko. Dinamika batzuk sortu dira, hainbat biktima bildu dira eta horien inguruan egoera berria sortu da. Lasa-Zabalaren kasuan biktima horiez hitz egitea eragin du, adibidez.

J. OLASAGARRE: *Twist* nobelak dolua egiten laguntzen du, zauri hori sendatuz eta azaleratuz. Niri baina interesatzen zait galdetzea zer galdu dugun, eta galdu dugun horri nola atxiki gatzazkion.

Erantzun, beraz.

J. OLASAGARRE: Gu oso atxikita gaude melan-
kolikoki nazio izaerari. Objektu bat galtzen
denean berreskuratu ohi du literaturak. Freudek
dioenez bi modu daude horiek berreskuratzeko:
bat, ez duzu galdu nahi eta objektua barruan
sartzen duzu betiko zuretzat gordez. Bestea
dolua lantzea da, negar egin. Objektua galdutzat
eman duzu eta desioa beste zerbaiten bila jar-
tzen duzu. Politikoki ezker abertzaleari trauma-
ren bukaera iritsi zaio, traumaren ondorengo
garaian gaude, baina ez daki non dagoen zehaz-
ki, aurrera nola egin ez daki. Zentzu horretan,
komunitate horrek beste modu bat aurkitu
beharko du nobela egiteko, egoera kontatzeko
beste modu bat.

I. RETOLAZA: Horregatik, hori dela eta, niri “lite-
raturaren autonomia” delakoaz hitz egitean zalan-
tzak sortzen zaizkit. Gu literatura esparruan gabil-
tza, eta nahiz eta jakin, autonomia eta
heteronomia horretan betiere tentsioa sortzen
dela, denok sinesten dugu literaturak berezko
esparrua duela, bere pentsamendua eta irakurtze-
ko modu propioekin. *Twist* nobelak laguntzen du
bide hori egiten, baina bide egin duenean, publi-
koki atera denean, niri zalantzak sortu dizkit lite-
raturaren ikuspegitik. Hau da, ez dakit liburuaren
irakurketari edo mezuari on egiten dion, eta kapi-
tal sinbolikoaren truke batean ari ote zirenetz.
Beste garai batean biktimen alde agertzen zen
manifestazioen bidez. Literaturaren esparrutik
egite horrek zalantzak sortzen dizkit, izan ere,
liburu horretan gertakari sozial batzuen beste ertz
batzuk agertzen dira, bada, ez dakit ez ote diren
difuminatuta geratu. Askotan ez dakit zein neu-
rrian egokia den komunitatearen agerbidea urra-
tzea aurrera egiteko.

Literatura politikaren zerbitzura jartzen ote da?

M. AYERBE: Zerbitzura jartzea baino erabilera
dago. Jendeari galdetzen badiozu *Twist* zertaz den,
Lasa-Zabalari buruzkoa dela esango dizu. Hori era-
kutsi zaiolako. *Hamaika pauso* nobela [Saizarbitoria-
rena] inori ez zaio bururatzen Angel Otegiren fusi-

lamenduaz denik. Eta horretaz ere bada, baina ez da horren ikurra. *Twisten* badago hori, baina ez hori bakarrik. Orain, beharbada, horretaz hitz egiteko garaia iritsi da. Hitz egin behar da tabuak hausten joateko. Literatura hartzen da kasu horretan abiapuntutzat, edo hartzen dira bizipen batzuk. Niri galdera hau sortu zitzaidan hala ere: zer behar dago liburu horren inguruan horrela jarduteko?

I. RETOLAZA: Horretara iritsi nahi nuen, lehen Olasagarrek esandakoaren harian, literatura politikaren esparruko ekimen batzuekin nahastea zalantzan jartzen dut. Dagoen tentsioa ageri da hor.

J. OLASAGARRE: Azkenean literaturak arrisku hori dauka, gauza lazgarri bat estetikoegia bihurtzea, eta, neurri batean, hutsean uztea.

M. AYERBE: Hor badago mugarri bat. Mikel Hernandez Abaituaren *Etorriko bai? nirekin?* nobela. Hautu bat egin zuen: “Nik biolentzia gaitzesten dut, alde batekoa nahiz bestekoa. Eta biekin zorrotza izango naiz” zioen. *Yoyesen* hilketarekin bukatzen da nobela. Nobela nire eskuetatik aparte egon zen, liburua oso geroago jaso nuen. Ez zitzaidan beste liburu batzuk bezain azkar iritsi, hor arestian aipatu “erabilera” dago. Nago bere balio sinbolikoa orduan galdu ote zuen. Konturatu nintzenean liburu hori bazegoela, “non egon naiz?”, galdetu nion nire buruari. Hori gertatu zait askotan, gaztea nintzelako edo. Bestalde, gaur egunera etorrita, Mikel Antzak *Atzerri* kaleratu ondoren [Xabier Montoyak ARGIAN egindako elkarrizketan] gatazkaren inguruan esaten duenean “nik idatzi dudana autofikzioa da, banaiz ni baina ez naiz ni”. Bada, niri duda-muda asko sortzen zait. *Atzerri*n Euskal Herriko askapenaren aldeko borrokarekin zerikusia duen garrantzitsuena kontakizunetik at uzten du. Literaturaren bidez hori kontatzea akatsa dela dio. Hori baino lehen geltoki batzuk landu behar direla. Berak dio literaturak ez duela balio gertatua kontatzeko. Kontraesanean ari da. Nik ezin dut liburua idazlea protagonista ez balitz bezala irakurri. Eta



Mikel Ayerbe

Joseba Gabilondok dioenez, orain ez dago heriotza mehatxurik, eta horrek irekitzen du beste fase bat, askoz beldur gutxiago dago hitz egiteko eta idazteko, tabuei heltzeko”

berak hori egiten du, literatura egiten du. Kontraesan handia dago, elkarrizketa eta liburua irakurri nituenean “kontraesana da liburu hori hasten delako orainaldian” pentsatu nuen. Hasten da presoa denean, orainean, *flashback* egiten du [analepsis], leku eta garai batera doa, atzera. Orainaldian ez balitz hasi, ez nioke arazorik aurkituko. Baina 90era bitartekoak kontatzen ditu, ETAn sartu zen arte, protagonista ETAn sartu ez balitz bezala. Dioenez, ezin du kontatu gero zer etorriko den. Baina atzera egiten du, “hau kontatzen dut baina hemendik aurrera ez dut kontatzen”. Ez da zuzena.

I. RETOLAZA: Gai hori garrantzitsua da. Halako gaiez hitz egiten dugunean, errealitatearekiko dugun harremanaz hitz egitean, idaztearen posizioaz hitz egiten dugu, egin duenaz, baina ezin dugu baztertu nor den protagonista eta egilea.

M. AYERBE: Mikel Antza, ETAkidea, gatazkan esku-hartzea izan duena, *Yoyes* bezala, ez da gatazkan edonor. Orduan, Antzaren kasuan, autofikzioa egiten baduzu, Antza protagonista bada, nik ezin dut Antzaren gauza asko gogoratu eta beste batzuk ez. Gero esanguratsua da, idazleek gatazkaz idazten dutenean, nobela gehiengotik protagonista idazlea da: *Soinujolearen semea*, *Hamaika pauso*, *Lagun izoztua*, *Twist*, *Martutene*, *Hodei berdeak*, *Bizja lo*, *Mea culpa*, *Koaderno gorria*...

Zergatik ote?

M. AYERBE: Idazleek erantzukizun bat hartu dutelako gizartean, ezin dute errealitatea saihe-



“Twist nobelak laguntzen du dolua egiten, baina bide egin duenean, publikoki atera denean, niri zalantzak sortu dizkit literaturaren ikuspegitik. Ez dakit liburuaren irakurketari edo mezuari on egiten dion, eta kapital sinbolikoaren truke batean ari ote zirenetz”, dio Retolazak.

tu. Horretarako *Goenkale* telesaila, ihesaren literatura edo fantasia daude. Idazleak une batez distantzia hartzeko beharra dauka. Olasagarrek esan bezala, nobela ederretsi egiten du. Gertarak eta gogoetak kontatzen ditu, planoak desdoblatur egiten ditu literaturaren bitartez. Joseba Gabilondok dioenez, ezin da errealtatea bere horretan islatu. Diskurtso bikoitza sortzen du, nolabait. *Twisten* errealtatearen errepresentazio balizko bat egiten du Canok, eta horrek sor ditzakeen kezka guztiak datoz ondoren.

I. RETOLAZA: Azken finean, memoriaren narrazioa auzitan dago beti. Aitortzen da memoria etengabe berridazten dela. Nobela memoria eraikitzeko tramankulua bihurtzen da.

“Iraganaren oroitzapenak ez du ezertarako balio gure eta gaiztoaren arteko horma zeharkaezina eraikitze-ko baliatzen bada, soilik heroi akatsgabe eta biktima errugabeekin identifikatuz eta gaizkileak gizatasunaren mugatik kanpo ezarriz” dio ere Tódorovék.

J. OLASAGARRE: Heroi horiek ez dira “jende” jada. Alde egin zuten. Iheslarien itzulera kontatuko lukeen nobela batean, protagonistak derrigorrez dolu egin beharko lioke bere baitan atxikita izan duen Euskal Herriaren ideia barruratu horri. Melankolikoki biziara duen egoera horri begira jarri behar luke, egora soziopolitikoa aldatu baita.

I. RETOLAZA: Hori nondik begiratzen den, ez baita beraien esku itzultzea.

J. OLASAGARRE: Ni ari naiz nobela bat idatziko litzatekeen kasuan. Pertsonaiak arazo hori eduki beharko luke. Beste gauza bat da nola aurre egi-ten zaion horri. Alegia, zu joan zinen, trauma bat pasa duzu, eta nolabait ere barruratu zenuen trauma sortu zizuna: Euskal Herria eta ametsak barruratuta bizi izan zara urtetan. Hona itzultzean, ingurua aldatu da neurri batean, zu ere aldatu zarela neurri batean, orduan pertsonaiak horri egin behar dio aurre.

I. RETOLAZA: Herri hori ez dago horretan, ez da inoiz egon. Iheslari horien artean denetarik dago. Zuk diozuen trauma hori nik ez dut sentitzen pertsonalki nire inguruan.

M. AYERBE: Badaude ihes eginda dauden asko, eta motibo ezberdinengatik. Iheslariari konnotazio bat edo beste eman diezaiokegu. Kontua da komunitate horretako parte sentitzen direla, sentitzen ditugula. Orduan?

J. OLASAGARRE: Ni beti ari naiz nobela hipotetiko batez. Gatazka trauma da ez dizulako zure izatea normalizatua izaten uzten.

I. RETOLAZA: Izate normalizatua izaten uzten ez diguten mila gauza daude.

J. OLASAGARRE: Trauma da –zure bilakaeran– izaten uzten ez dizuna, traumak zure bizi baldintzak –ez ekonomikoak– puskatzen dizkizu, bizitzeko baldintza mentalak puskatu ere. ETAk militantearen kasuan, demagun Mikel Antzaren

kasuan, ihes egin beharra trauma da. Pertsona hori, pertsonaia gisa ekartzen badugu nobelara, demagun hamabost urte pasatzen duela kanpoan –edo kartzelan–, bada gero pertsonaia horrek derrigorrez azaldu –kontrastatu– beharko luke barruan gorde duen orduko izatea eta orain aurkituko duena. Nobela talka horretan gauzatuko da.

I. RETOLAZA: Ez zait iruditzen gatazka gaintitze horretan trauma dagoenik. Duela hamar edo hogeitaz urte, jende asko –ari naiz subjektu pertsonalen traumaz– orain eta orduan utzi ez zuen komunitate batera itzultzen da gaur egun.

M. AYERBE: Joseba Gabilondok dioenez, orain ez dago heriotza mehatxurik, eta horrek irekitzen du beste fase bat, askoz beldur gutxiago dago hitz egiteko eta idazteko, tabuei heltzeko.

I. RETOLAZA: Hala ere, hein batean, beste diskurtsoak lantzeko ez duzu askatasunik. Olasagarrek pentsamendu hegemonikoa aipatu du: uneon gauza bat da zuk nahi duzuna adieraztea eta beste bat presio soziala dela medio, zer aukera daukazu hori egiteko. Ez dakit gauza batzuek hain erraz ote den idaztea.

Fikzioaren bidez badago nahi dena esatea. Edo ez?

I. RETOLAZA: *Terra sigillata* [Joxe Austin Arrieta-ren nobela] agertzen da hori. Idazlearen autozentsuratzeko beharra adierazten du. “Esan nahi nuke zer sentitzen duzun, baina ezin dut. Hitz egin nahi dut, baina ezin dut, autozentsurarengatik”. Hemen, politikoki, lehenengo puntuan gaitzespena ezarri da, biolentzia mota baten gaitzespena. Hori da errealtatea. Orduan diskurtsoaren lehenengo premisa da, biolentzia konkretu bat hartu behar dela hitz egin ahal izateko edozer gauzaren inguruan. Pentsamendu hegemonikoan hori dago.

M. AYERBE: Baina hori idazlearen hautu pertsonala da, zuk autozentsurari men egiten diozu edo ez. Gero pertsonak bizi ditzakeen ondorio sozialak daude. Adibidez, garai batean ezin zen broma

bat egin herriaren inguruan, ezin zenituen fikzioaren mekanismo batzuk erabili ere, ez zelako moralki ondo ikusia, iseka egiten zenuelakoan. Gizartearen egoerak badu pisu handia. Dena den, aldi bat pasa da ETAk biolentzia utzi ondorenean. Noski, zauria oraindik ere itxi gabe dago.

I. RETOLAZA: Zauri batzuk itxi gabe baldin badaude... Demagun zuk pasa duzula hogeitaz urte preso bati bisita egiten espetxera. Zer da trauma? Trauma bizi omen dutenek ez dakit horrela bizi duten. Badago distantzia bat minaren eta hitz egitearen artean, beharbada ez da nahikoa hitz egiten. Pertsona horiek ez dira idazle. Idazleek normalean ez dute hori bizi, ez dituzte kezka berak. Hori bezain sinple izan daiteke. Trauma asko dago, eta ni jarriko banintz idaztera, adibidez, illegalizazioaren inguruan, bada pertsona batzuk epaitzeko daude oraindik ere. *Terra sigillata* garai konkretu batean dago idatzia. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik aurrera giroa dago, adierazpen askatasunaren inguruan. Gogoeta asko dago berean, ez dago autozentsura erabatekoa ere. Beste modu batez kontatua dela esan nahi dut.

M. AYERBE: Horregatik, Antzaren kasura itzuliz: zergatik ezin da erabili fikzioa? Ezin duzu idatzi prozesatuta dauden pertsonen izenez, baina fikzioaren bidez mekanismo batzuk erabili ditzakezu, asmatzearen bidez, bide antzekoak jorratzeko. Ekimen literarioa estrategia da, idazleak autozentsuratzen du bere burua edo ez. Bestera adierazten ez den gauza asko dio. Haur eta gazte literatura hor dago. Haur askori bestera adierazi ezin zaiona adierazten zaio literatura horren bidez, ez dago beste modurik. Patxi Zubizarretaren *Pikolo* lekuko. Txikitan bizi genuen egoera kontatzen du. Trauma esaten dugu eta egoera traumatiko da, beharbada.

J. OLASAGARRE: Nik trauma esaten dut, herrian hildakoak egon direlako. Artean konpondu ez den egoera.

M. AYERBE: Bai. Gu jaio ginenerako hemen zegoen egoera. ■



Stefanie Lehner *

Queen's Unibertsitateko irakaslea (Belfast, Irlanda).

Irlandako literatura eta gatazka: alde pertsonala eta politikoa

XVIII. mendean loratu zenetik, nobela irlandarrak Irlanda eta Britainia Handiaren arteko erlazio historiko, sozio-politiko, ekonomiko eta kulturalen sare korapilatsua jorratu du.

Zehazki erlijio, klase, arraza eta genero kontuak eta horiek naziotasunarekin eta nazio izaezarekin duten erlazioa izan ditu hizpide. Maria Edgeworth eta Sydney Owenson (Lady Morgan) hasierako nobelagileen lanak “elezahar nazional” modukoak bihurtu ziren; 1801eko Britainia Handiarekin bat egiteko legearen ondorengo Irlanda irudikatzea helburu nagusi duten nobela erromantikoak deskribatzeko erabiltzen da termino hori.

Nobela horiek irlandarren eta ingelesen arteko gatazka konponbidean jartzen ahalegindu ohi dira, sarri ezkontza bidez, eta hori elkarren aurka ari diren klaseen eta kulturen arteko adiskidetze nazional desiratuaren alegoria da. Harreman politikoak eremu pertsonalera eramanda, nazio gatazkek konpontzen errazagoak dira eta horrek irlandar literaturaren ezaugarri nagusietakoa izaten jarraitzen du gaur egun.

Eta alderantziz, Irlandako gatazka konponezin gisa ere irudikatu izan da maiz; ikusmolde horren oinarrian Irlandako historia Joep Leerssenek “paradigma traumatikoa” deritzon harri-patuta dagoela dioen ideia dago. “Historia ... esnatzen ahalegintzen ari naizen amesgaiztoa da”; James Joyceren *Ulysses*en Stephen Dedalus-ek dioena gogoan, Leerssenek horrela deskribatzen du historiaren zentzu hori: “Harrigarriro ezagun egiten den amesgaiztozko zama, eredu monotono bera errepikatzea... behin eta berriro”. Konponezinezko krisiaren ikusmolde horren erakusgarri garbienak Irlanda Iparraldeko “istiluen” deskribapenak dira, nagusiki 1969an Irlanda Iparraldean indarkeriak gora egin zuenetik gaiari buruz egin diren 400 bat suspentse nobela eta filmetan. Adibidez, Brian Moore-ren *Lies of Silence* suspentse nobelak Irlanda Iparraldeko gatazka “hilketa kate amaigabe eta zentzugabe” gisa deskribatzen du (64. or.). Suspentse nobela horiek lehen aipatutako nobela zaharra goen antza izan arren, intrintsekoki ezkorragoak dira. Irlanda Iparraldeko gatazkaren testuingurua baztertze eta, horren ordean, “atabismoaren mitoari” heltzeko joera dute. Modu horretan soilik “madarikazio historiko berezi batek, zorigaiz-

toko patu predeterminatu batek justifikatu deza-ke gerra”.

Irlanda Iparraldeko oraintsuko gatazkak (1968-1998) elezahar nazionala zaharberritu du nolabait, “barrikada arteko maitasunezko” argumentuen bidez. Lan horietan, aurkako jarrera politikoak dituzten maitaleen arteko –komunitate unionista eta nazionalistako kideen arteko– harreman pribatu eta erromantikoa arriskuan jartzen dute edo erabat galera izaten dute indar politiko handiagoek. Zehazki, Joan Lingard-en haurrentzako nobeletan, eta beste lan batzuetan, hala nola Bernard McLavertyren *Cal* (1983) nobelan, badi-rudi alegorikoki bilatzen den adiskidetzeko nazionala soilik eremu pribatuan imajinatu daitekeela, gorabehera politikoen menpe dagoela eta patuaren nondik norakoek zapuzten dutela.

1990eko hamarkadan, idazle belaunaldi berri bat agertu zen. Irlanda Iparraldeko istiluen garaian hazi ziren eta literaturako paradigma zaharrak berridaztea eta ikuspuntu berriak jorratzea zuten xede. Bereziki bi idazle, Glenn Patterson eta Robert McLiam Wilson, ahalegindu ziren Irlanda Iparraldeko identitateari eta Belfasteko hiri kulturei buruzko ikuspuntu berriak lantzen, eta horretarako intrintsekoki postmodenotzat jo ohi diren estrategia eta kontzeptu literarioak erabili zituzten. Pattersonen *Fat Lad* (1992) nobelan, adibidez, Drew Linden protagonista sorterrira gogoz kontra itzuliko da, eta asko aldatu dela ikusiko du.

Nahiz eta liburuan Irlanda Iparraldeko gizartearen irudi berriak topatzeko ahalegina egin, protagonista zein nobela iraganarekin obsesionatuta daude, liburuen *leitmotiv* zirkularrak agerian uzten duenez –nagusiki familiak daukan koloretako arrainak nortzen duena, askatu ondoren ere bueltaka eta bueltaka jarraitzen baitu, oraindik arrainontzian balego bezala–.

1994ko su-etenaren testuinguruan idatzia, Robert McLiam Wilsonen *Eureka Street* (1996)

bake prozesuko nobela eredugarria da hainbat zentzutan, eta garaiko baikortasun bolada islatzen du. Kontakizunak Jake katolikoaren era Chuckie protestantearen arteko laguntasunaren inguruan txirikordatuz, *Eureka Street*en Belfast “kontakizunen biltegi” bihurtzen da, “orainaldia, iragana eta etorkizuna. Hiria nobela bat da” (215. or.). Nobelak Belfast osotasunean jaso nahi du, eta hibridotasun postkolonialaren eta luxu postmodernoaren gune gisa irudikatzen du, gurutzatzen diren istorioez eta identitate plural berriei baliatuta. *Pattersonen* eta *McLiam Wilsonen* nobelak nolabaiteko maite harreman nazionalekin amaitzen dira. *Fat Laden*, Drewk, neskalagun ingelesa neska protestanteaz ordezkatu ondoren, Dublinen bizi den Annarekin bukatuko du. Maitasuna egiten dutenean Drewk azken muga zeharkatzen duela deskribatzen da liburuan: “Mugak zeharkatu zituzten eta identitateak lausotu ziren. Lur eremu eskergekin gora eta behera egin zuten haien gorputzekin batera” (249. or.). Antzera, *Eureka Street*en amaieran, Jakek errepublikanismoa nortzen duen Aoirgheren besoetan aurkituko du zoriona. Belfasten jaiotako bi gizonen emakume irlandarrekin maite harremanak izanez garbitzen dituzte okerrak eta, beraz, konponbide pertsonalera jo eta alde politikoa baztertzeko joeraren beste adibide bat dira.

1998ko Ostiral Santuko Akordioaren ondoren, Irlanda Iparraldearen iragana lantzeko ekimen instituzional orokorrik ezean, zenbait idazlek Irlanda Iparralderako fikziozko egia eta adiskidetzeko batzordeak imajinatu dituzte. David Park-en *The Truth Commissioner* (2008) nobelak eta zenbait antzezlanek, esaterako, David Ireland-en *Everything Between Us* (2010) eta Owen McCafferty-ren *Quietly* (2012) lan berriak Hegofrikako erdua aipatzen dute, etsai ohiak aurrez aurre biltzearen ondorioak jorratzeko. Hala ere, konponbidea eta adiskidetzeko eremu pribatuari lotuta daude oraindik eta, hala, bake prozesua eremu politikotik baztertu eta alor pribatura eta etxe barrura mugatzen dute.



Leonardo Cecchini *

Aarhus Unibertsitateko irakaslea (Danimarka).

Berunezko Urteen oroimena Italian

Hogeita hamar urte baino gehiago igaro diren arren, “Berunezko Urteak”, hau da, 1970eko hamarkadan Italia astindu zuen eskuineko nahiz ezkerreko indakeria politiko uholdeak oraindik zauri irekia dira gure herrialdearen historian.

Epaiketa asko egin diren arren, sistema judicialak funtsean huts egin du urte haietan benetan gertatu zena jakiteko ahaleginean. Samin handia eragiten du oraindik inork zigorrik jaso ez izanak 1969an Milango Piazza Fontanan neofaxistek egindako triskantzagatik (17 hildako eta 88 zauritu banketxe batean lehertutako bonba baten eraginez), Italian terrorismoaren aroa abiarazi zuena, eta 1974an Bresciako Piazza della Loggia jazotakoagatik (8 hildako eta 102 zauritu sindikatuen manifestazio batean leherrarazitako bonba baten eraginez). Hala-ber, itzalguneak daude Brigade Rosse (Brigada Gorriak) taldeak 1978an DC alderdiko presidente Aldo Moro bahitu eta hil zueneko auzian eta, oro har, zerbitzu sekretuetako zenbait kidek talde subertsibo neofaxistekin zeukaten harremanean (laguntza aktiboa? Babesa?). Beste gertaera batzuk ere ez dituzte sekula era-

bat argitu. Sistema politikoari dagokionez, nahiz eta ikerketa batzorde parlamentario bat sortu (1988tik 2001era lanean aritu zena), ez da gai izan aldean arteko baketzean lagunduko luketen elementuak eskaintzeko.

1992-93an ustelkeriaren aurka epaileek abiarazitako ikerketek (“*Mani Pulite*” edo “Esku Garbiak” delako operazioak) sistema zahar-aren gainbehera eragin zuten, eta horren ondoren agertutako alderdien jokabidea bereziki zaila da onartzen gaur egun ere. Orduan sarraskien biktimen egia eta justizia eskakizunei erantzuteko aukera zabaldu zen eta, horrekin batera, italiar politikan benetako aldi berri bat abiatzeko aukera. Zentzu horretan, batzorde parlamentarioak erakutsi zuen politikariak erabat ezigauza izan direla iraganeko zatiketak eta hausturak gaingitzeke.

Ondorioz, Berunezko Urteei buruzko diskurtso publikoak gorabehera eskizofrenikoak dauzka oraindik ere: batetik, gertatutakoa eza-batzeko eta ahazteko tentazioa etengabea da eta, bestetik, aldizka, iragana politikoki erabiltzen da egungo alderdi politikoen balizko interesen arabera. Estatuaren prozesu eta ekimen



Demokrazia pluralistetan ez da posible eta ez da komeni iraganaren memoria partekatu bat izatea, baina Italian benetako arazoa da oroimenaren aurkakoak etengabe konspirazio teoriez elikatzen direla testuinguru opaku batean eta, beraz, teoria horiek ezin dira gezurtatu ala egiaztatu”

politikoez ez dute zirrikiturik zabaldu urte haietako “oroimenaren aurkako” jarrera politikoetan. Jarrera horiei eusten zaie oraindik eskuinean nahiz ezkerrean, eta behin eta berriro azken mendeko lerratze ideologiko berberak proposatzen dira (Berlusconik antikomunismoaren erretrorikaren baliabidea etengabe erabiltzea horren adibide garbia da). Beraz, Beruneko Urteak “*divisività*” edo “*zaticeta*” ideologiko eta antropologiko horren azken atal gisa ere interpretatu litezke (terminoa Enrico Rusconi politologoak erabili zuen lehenengoz). Hau da, besteren diskurtsoari zilegitasuna kentzeko ohitura horrek Italiako historia osoa hartzen du, Batasunetik hasi eta gaur egun arte.

Estatuak erantzun instituzionalik eman ez duenez, gizarte zibila izan da Beruneko Urteak memoria kolektiboan irudikatzeko eta berregiteko ahalegina eskatu duena. Batetik, biktimen eta senitartekoen elkarrekin gertatutakoaren oroimena atxikitzeko egin duten lana oso garrantzitsua izan da eta, hala, hein baten behintzat, Estatuaren borondaterik eza konpentsatu du. Bestetik, kultura eta arte ekoizpena ere funtsezkoa izan da. Oroitidazki, testigantza, film, nobela, telesail... ugari egin dituzte, italiar gizartearen hausnarketarako tresnez hornitzeko ahaleginean eragin handia izan

dutenak. Lan horietako batzuek oraindik itxi ez diren zaurien arazoa hutsaltasunik gabe lantzea lortu dute eta, horrenbestez, justizia ekintza publiko bihurtu dira.

Demokrazia pluralistetan ez da posible eta ez da komeni iraganaren memoria partekatu bat izatea, baina Italian benetako arazoa da oroimenaren aurkakoak etengabe konspirazio teoriez elikatzen direla testuinguru opaku batean (dokumentu asko Estatu sekretu izendatu dituzte) eta, beraz, teoria horiek ezin dira gezurtatu ala egiaztatu. Iraganeko gertaerei buruzko egia jakiten bada eta Estatuak nahiz garaiko agintariek terrorismoan izan zuten parte-hartzea argitzen bada soilik izango da posible oroimenaren aurkako jarrera politikoen eragina mugatzea eta urte haiei buruzko hausnarketa prozesu berria abiaraztea. Prozesu horren bidez ez da nahitaez memoria partekatua sortuko, baina gehiengoak onartutako premisetan oinarritu behar du eta besteen arrazoiak kontuan hartzen jakin behar du.

Iritzi egileak

*** Leonardo Cecchini**

Aarhus Unibertsitateko irakaslea (Danimarka). Bere ikerketa esparrua bi eremutan kokatzen da: literatur teoria, eta historia eta azterketa kulturalaren artean. Italiar literaturan aditua da, eta memoriaren eta narrazioaren inguruan ikertzeaz gain, indarkeria politikoaren irudikapenei buruzko lanak ere argitaratu ditu.

*** Stefanie Lehner**

Bere ikerketak hiru alderdi hartzen ditu, politikaren, etikaren eta estetikaren arteko erlazioetan oinarritzen baita. Harreman horiek Irlanda Iparraldeko, Hegoafrika eta Rwandako gatazka-ondoko literaturan eta kulturen nola gauzatzen diren aztertzen du.



*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 58.000* gara.



*CIES-en komunikabideetako audientziaren 2012ko bigarren ikerketa.